


## Gure gela kuttuna

### HELBURU KOMUNIKATIBOAK

- Hizkuntzarekin gozatu eta euskararekiko atxikimendua handitu.
- Deskribapen testuen egitura orokorra ezagutu eta barneratu.
- Oinarrizko hizkuntza-formak ulertu eta ekoitzi: non, nolakoa, zergatik, zertarako.
- Oinarrizko komunikazio-estrategiak erabiltzen ikasi: zer bait nola esan ez dakigunean, beste modu batean esaten irakatsi estrategia batzuen bidez.
- Lexiko berria ikasi: zer bait nolakoa den esateko, izaera eta fisikoa deskribatzen duten adjektiboak.



## ANTOLAKETA

- 5-6 asteko lanketa
- Saio bakoitzean 30 min: 15 min ikasleen ekoizpenak eta beste 15 min dinamikak.
- Girotea: etxetik ekarritako kuxinekin borobilean eserita, eta saioen hasieran egunero musika:
  - 1. gela atontzen: astoa ikusi nuen  
<https://www.youtube.com/watch?v=jJHwiDxy2gc>
  - 2. gelakideak ezagutzen: Papi Kaltzaluze  
<https://www.youtube.com/watch?v=6LOmMuYsMYI>
  - 3. gelako atea irekitzen: Papi Kaltzaluze  
<https://www.youtube.com/watch?v=6LOmMuYsMYI>
- Talde antolaketa:
  - 1. gela atontzen: ekoizpena bakarka egingo dute. Egunean 2-3 ikasle.
  - 2. gelakideak ezagutzen: ekoizpena binaka egingo dute. Egunean 2 talde.
  - 3. gelako atea irekitzen: ekoizpena bakarka egingo dute, azken bi egunetan.

## ESKU HARTZEA

- Taldekatzeak egitean, saiatu taldeak orekatzen (talde bakoitza heterogeneoa).
- Gozatuz ikasteko gune goxoa eraiki: espazio edo txoko berri bat aukeratu, kuxinak ipini...
- Garrantzitsua esku-hartzeari denbora eskaintzea: irakasle bakoitzak beharrezko arabera esku-hartzeak egingo ditu. Taularen ezkerreko zutabean EKINTZAK daude eta eskuineko zutabean ESKU-HARTZEAK diseinatu dira.
- Errutina konplexuago bihurtuz doa: saio bakoitzean erronka linguistiko bat (hizkera jasoagoa edo zehatzagoa) gehitu behar zaio taldeari.
- Irakasleak non jartzen du fokua aldiro? GARRANTZITSUA.
- Liburu bat, ikasleek tartea dutenean irakurri eta gozatzeko, etxean esaterako:
  - Itxasoa etxe barruan, Harkaitz Cano (Elkar) / <https://vimeo.com/135029712>

## HIZKUNTZA-ERRUTINA: GURE GELA KUTTUNA

### 1. GELA ATONTZEN: gure gela gauza zoragarriekin atontzen.

Iraupena: 11 saio

#### EKINTZAK

#### ESKU-HARTZEAK



#### Aurretiko lanak:




- ✓ Ikasleei etxetik **kuxin bana ekartzeko** eskatu. Kuxinarekin eseriko dira borobilean.
- ✓ **Espazioa antolatzeko behar diren materialak prestatu:** hautatu gune goxo bat, izan daiteke borobilean, alfonbran...
- ✓ **Taldekatzerako irizpideak zehaztu:** saiatu taldeak orekatzen, alegia, hizkuntza gaitasuna eta erabilera aldetik heterogeneoak izan daitezen, ahal den neurrian. 2-3 ikasleko taldeak (nahiz gero gehienetan, bakarka egin beharko dituzten ekoizpenak).
- ✓ Errutinarekin hasi aurretik, komeni da irakasleak gelari begiratu bat botatzea eta **beharrekoak ez diren gauzak kentzea**, errutinaren bitartean ekarritakoek lekua eduki dezaten.





#### 1. EGUNA:

##### ▪ Girotzea:

- ✓ Errutina girotuko duen **musika jarri**. Bitartean, **ikasleak errutinaren txokora eraman**. Abestia: *Astoa ikusi nuen*, Imanol Urbietak. Eskuragarria hemen <https://www.youtube.com/watch?v=jJHwiDxy2gc>
- ✓ Kuxinekin borobil batean eseri eta datozen egunetan burutuko dugun **dinamika aurkeztu:**
  - Lehenik, garrantzitsua da **txokoari zentzua ematea**: konfiantzaz komunikatzeko gunea izango da, oso garrantzitsua da elkarri entzuteko prest egotea eta hor kontatzen diren gauzak bertan geratuko direla adieraztea.
  - **Abestiaren laguntzarekin** gure lanketa **testuinguratu**: *“Zer dio astoak kantuan? Bere ikastola oso zatarrak dela...eta...gure ikasgelara etorri nahi duela? Gure ikasgela atsegina al da?”*
  - *“Begira zenbat ordu pasatzen ditugun gela honetan. Garrantzitsua izango litzateke hona gustura etortzea, ezta? Gustura sentitzen zarete zuek gela honetan? Zuek noiz sentitzen zarete eroso etxean, adibidez? Badago zuen etxean txokoren bat bereziki atsegina egiten zaizuena eta bertan lasai-lasai egoten zaretena?? Eta txoko horretan zaudetenean, ez duzue patxadaz hitz egiten, eta jolasten?”*
  - *Zerbait egin dezakegu gela hau atseginagoa egoteko? Ez al zaizue iruditzen oso polita izan daitekeela elkarren artean pentsatzea nolako ikasgela nahiko genukeen, eta gelara ekartzea gustuko ditugun gauzak gela politago eta goxoago jartzeko? Datozen egunetan guztion artean aldaketa batzuk egingo ditugu, eta saiatuko gara guztion gustukoa den gela berritzen. Denon artean gelan goxoago sentitzeko aldaketak egingo ditugu, eta elkarri nahi*

<p><i>duguna patxadan esaten. Horretan arituko gara egun hauetan, ados? Eta amaieran ondoko gelakoei aurkeztuko diegu gure gela berria”.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Argazkia atera gelari eta paretan ipini. Nahi izanez gero, H.Errutinan zehar argazkiak aterako zaizkio gelari, pixkanaka aldatzen ari dela ikusteko.</li> </ul>	
<p><b>2. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Girotxea:</b> musika jarri, gogoratu zein den <b>gure txokoa, aurreko eguneko informazioa</b> (ikus 1.eguna).</li> <li>▪ <b>Ametsetako ikasgela (A FITXA)</b></li> </ul>	 A fitxa.pdf
<p><b>3. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Girotxea:</b> abestiaren letra entzun (nahi izanez gero irudien laguntzarekin) eta ikasten hasi lehen bi ahapaldiak. Etxean entzun dezaten ere eskatuko zaie: esaterako, gurasoei postaz abestiaren lotura bidali.</li> <li>▪ <b>Irakasleak eredu eman:</b> izar uxoa (<b>B FITXA</b>)</li> <li>▪ Hurrengo egunerako zereginaren <b>kontsigna</b> eman: <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <i>Aurreko bi egunetan imajinatu dugun ikasgela kuttun horretarako, bakoitzak gauza bat (objektu bat) ekarri beharko du etxetik, eta besteen aurrean aurkeztu. Baina, <b>objektua ez dugu erakutsiko aurkezpena bukatu arte, hasieran gorde egingo dugu.</b></i></li> <li>✓ <b>Elkarrekin aurkezpenaren eskemako galderak gogoratu eta arbelean osatu</b> (Ikus B fitxa). Ondoren, ikasle bakoitzak bere koadernoan idatzi egingo ditu galderak edo irakasleak emango dizkie idatzita.</li> <li>✓ <b>Antolaketa:</b> ikasleek bakarka egingo dute objektuaren deskribapena. Eguneko 3 objektu aurkeztuko dira. Taldeak egin eta bakoitzari noiz aurkeztu beharko duen esan.</li> </ul> </li> </ul>	 B fitxa.pdf
<p><b>4. EGUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Girotxea.</b></li> <li>▪ <b>3 ikasleren ekoizpenak grabatu: kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogoratu ikasleak ez duela erakutsiko ekarritako objektua ekoizpena amaitu arte.</li> <li>✓ <b>Garrantzitsua:</b> hasiera baten, ikasleei utziko zaie hitz egiten. Ikasleak zailtasun handiak izanez gero, hau da, kasik hitzik ez badute egiten, B fitxako eskemako galderak baliatuko ditu irakasleak laguntzeko. Bestela, ikasleei euren kabuz egin dezaten utziko zaie, bestelako laguntza gehigarririk eman gabe.</li> </ul> </li> </ul>	

<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ekoizpenen ondorengo esku-hartzea (C FITXA)</b></li> <li>▪ Hurrengo egunerako zereginaren <b>kontsigna</b> eman:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duen hurrengo egunean.</li> </ul> </li> </ul>	 C fitxa.pdf
<p><b>5. EGUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Girotxea.</b></li> <li>▪ <b>3 ikasleren ekoizpenak grabatu: kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogoratu ikasleak ez duela erakutsiko ekarritako objektua ekoizpena amaitu arte.</li> <li>✓ <b>Garrantzitsua:</b> hasiera baten, ikasleei utziko zaie hitz egiten. Ikasleak zailtasun handiak izanez gero, hau da, kasik hitzik ez badute egiten, B fitxako eskemako galderak baliatuko ditu irakasleak laguntzeko. Bestela, ikasleei euren kabuz egin dezaten utziko zaie, bestelako laguntza gehigarririk eman gabe.</li> </ul> </li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ekoizpenen ondorengo esku-hartzea (C FITXA)</b></li> <li>▪ Hurrengo egunerako zereginaren <b>kontsigna</b> eman:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duen hurrengo egunean.</li> </ul> </li> </ul>	
<p><b>6. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Girotxea (egunero jarriko da musika txokoan kokatzeko).</b></li> <li>▪ <b>Ikasle talde baten</b> ekoizpena.</li> <li>▪ <b>Ikasleen ekoizpenak osatzen:</b> aurkezpena amaitutakoan, ekarri dutena erakutsiko dute eta beste ikasleei galdera batzuk egingo zaizkie azalpena osatzeko asmoz.             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <i>Behin ikusita X ikasleak gaurkoan ekarri diguna, nolakoa dela esango zenukete zuek? Ongi deskribatu al digu? Bururatzen zaizue beste hitzen bat nolakoa den azaltzeko?</i></li> </ul> </li> <li>▪ <b>Zer-NOLAKOA</b> lantzen (<b>D FITXA</b>).</li> <li>▪ <b>Instituzionalizazioa:</b> saioari amaiera emateko, egun horretan ikasi dituzten adjektibo berriak jaso egingo dira, esaterako kartulina batean (ikasleek txandaka har dezakete hau egiteko ardura). Era horretan, ikusgarri egongo dira denontzako hitz berri horiek ikasgelako paretan, behar dituztenean erabiltzeko.</li> </ul>	 D fitxa.pdf
<p><b>7. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ikasle talde baten</b> ekoizpena.</li> </ul>	 E fitxa.pdf

<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ikasleen ekoizpenak osatzen:</b> aurkezpena amaitutakoan, ekarri dutena erakutsiko dute eta beste ikasleei galdera batzuk egingo zaizkie azalpena osatzeko asmoz. <b>Osatzen ari garen horma-irudia edo kartulina baliatuko da.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ <i>Behin ikusita X ikasleak gaurkoan ekarri diguna, nolakoa dela esango zenukete zuek? Ongi deskribatu al digu? Bururatzen zaizue beste hitzen bat nolakoa den azaltzeko?</i></li> </ul> </li> </ul> <p>Zer-NOLAKOA lantzen (E FITXA).</p>	
<p>8. EGUNA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ikasle talde baten</b> ekoizpena.</li> <li>▪ Zer-nolakoa-NON lantzen (F FITXA).</li> <li>▪ <b>Instituzionalizazioa</b> (ikus 6.eguna).</li> </ul>	 F fitxa.pdf
<p>9. EGUNA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ikasle talde baten</b> ekoizpena.</li> <li>▪ <b>Ikasleen ekoizpenak osatzen:</b> ikasitako egitura eta hitz berriak ekarriko ditugu, osatzen ari garen horma-irudia balia daiteke.</li> <li>▪ <b>Zertarako</b> lantzen (G FITXA).</li> </ul>	 G fitxa.pdf
<p>10. EGUNA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Girotzea.</b></li> <li>▪ <b>Ikasle talde baten</b> ekoizpena.</li> <li>▪ <b>Zertarako</b> lantzen (G FITXA).</li> <li>▪ <b>Hitzen labirintoa</b> (H FITXA).</li> </ul>	 H fitxa.pdf
<p>11. EGUNA:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Girotzea.</b></li> <li>▪ <b>Eguzki-lorearen kondaira</b> ezagutu (I FITXA).</li> <li>▪ Lehenengo azpigai honekin amaitzeko, gelari <b>argazkia atera</b> eta paretan ipiniko da, hasierako argazkiaren ondoan.</li> </ul>	 I fitxa.pdf
<p><b>2. GELAKIDEAK EZAGUTZEN: Nor dugu ondoan? Nor nahi dugu ondoan?</b> Iraupena: 11 saio</p>	
<p><b>EKINTZAK</b></p>	<p><b>ESKU-HARTZEAK</b></p>
<p> </p>	

### Aurretiko lanak:

- ✓ **Taldekatzerako irizpideak zehatzu:** saiatu taldeak orekatzen, alegia, hizkuntza gaitasuna eta erabilera aldetik heterogeneoak izan daitezen, ahal den neurrian. Bikoteka arituko dira ahoz. Egunean bi bikote (beraz, 4 ikasle).
- ✓ **Beharrezkoa** izango den **materiala prestatu**.

### 1. EGUNA:

#### ▪ Girotzea.

- ✓ **Musika: PIPI KALTZALUZE** <https://www.youtube.com/watch?v=6LOmMuYsMYI>
- ✓ **Gai aldaketa:** datozen saioetan landuko den gaia azaldu.
  - “Aizue, gela atondu dugu gure objektu kuttunenekin eta oso polita gelditu zaigu ezta? Begira, begira argazkiari... (Horman ipinitako argazkiari erreferentzia egingo zaio). Baina, ez al zaizue iruditzen gure gela guztiz atsegina izateko lagun berriak falta zaizkigula? Zer nolako lagun berriak nahi ditugu gure gelan?”
  - *Baina pentsatu dezagun guztion artean: nolako pertsona edota animaliak gustatzen zaizkigu? Errealak diren zein pertsona edo animaliak, edo zinema/ipuinetako zein pertsonaiak ekarriko zenituzkete?”* (arbelera ekarri, ikasgelan nahi ditugun lagun berri horien ezaugarri garrantzitsuenak).
  - Irakaslearentzako oharra: 3. Azpigaiaren hasieran “gure gelako atea irekitzen”, asanblada bat antolatuko da baloreen gaineko lanketa xume bat egiteko asmoz. Nahi baduzu, begiratu 1-2 egunak, irudikapen bat egiteko. Dena den, eguna iritsi arte, ikasleei ez diegu horren berri emango.

#### ▪ Hurrengo egunetarako zereginaren **kontsigna** eman:

- ✓ *Datozen egunotan, maite ditugun edo gustatzen zaizkigun lagunak ekarriko ditugu gelara. Horretarako binaka, pertsona edo animalia bat edo denontzako ezaguna den pertsonaia pentsatuko duzue gure gelakide berria izateko eta gainontzeko ikaskideei aurkeztuko diezue. Aurkeztean, azalduko dugu NOR DEN ekarri nahi dugun gelakide berria, NOLAKOA DEN eta ZERGATIK AUKERATU DUZUEN, ados?*  
*Gaur neu hasiko naiz gelakide berria aurkezten, ondo iruditzen bazaizue (J FITXA).*



J fitxa.pdf

### 2. EGUNA:

#### ▪ Girotzea. Musika: PIPI KALTZALUZE (irudi gabe).




#### ▪ Pipiren atalaren zati bat ikusi (20 min): <https://www.eitb.eus/eu/hiru3/marraski-bizidunak/bideoak/oso/158112/pipiren-bidai-handia-iii/>

#### ▪ Hurrengo egunetarako zereginaren **kontsigna** eman:




- ✓ Aurkezpenetarako bikoteak osatuko dira eta bikote bakoitzak noiz aurkeztuko duen erabakiko da.
- ✓ Bikoteka: batek pertsonaiaren alderdi fisikoaren berri emango du eta, besteak izaera aldetik nolakoa den deskribatuko du.
- ✓ 4. egunean tartea emango zaie gelakide berriaren deskribapena prestatzeko. Beraz, pentsatzen hasteko eskatuko zaie.






K fitxa.pdf

<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Aurkezpena antolatzen laguntzeko irakasleak eskema bat proposatuko du (<b>K FITXA</b>).</li> </ul>	
<p><b>3. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Pipiren atala ikusten bukatu</b> (10 min): <a href="https://www.eitb.eus/eu/hiru3/marrazki-bizidunak/bideoak/osoak/158112/pipiren-bidai-handia-iii/">https://www.eitb.eus/eu/hiru3/marrazki-bizidunak/bideoak/osoak/158112/pipiren-bidai-handia-iii/</a></li> <li>▪ Pipiren bideoa ikusi eta ondorengo <b>lanketa (L FITXA)</b>.</li> </ul>	 L fitxa.pdf
<p><b>4. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Hitzen labirintoa (H FITXA)</b>.</li> <li>▪ <b>Hurrengo egunetarako zereginaren kontsigna eman:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Denbora tarte bat utzi ikasleei haien aurkezpenak prestatzeko eta lana banatzeko. Konfiantzazko mezua emango diegu ikasleei, zailtasunak baldin badaude ahoz esaterakoan, lagundu egingo diogu elkarri.</li> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duten hurrengo egunean gelakide berria.</li> </ul> </li> </ul>	
<p><b>5. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi bikotek, aukeratutako gelakide berriaren <b>aurkezpena</b> egingo dute.</li> <li>▪ <b>Diskurtsoa osatzen + zuzenketak (M fitxa)</b>.</li> <li>▪ Hurrengo egunetarako zereginaren <b>kontsigna</b> eman:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duten hurrengo egunean gelakide berria.</li> </ul> </li> </ul>	 M fitxa.pdf
<p><b>6. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi bikotek, aukeratutako gelakide berriaren <b>aurkezpena</b> egingo dute.</li> <li>▪ <b>Diskurtsoa osatzen + zuzenketak (M fitxa)</b>.</li> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak I (N fitxa)</b>.</li> <li>▪ Hurrengo egunetarako zereginaren <b>kontsigna</b> eman:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duten hurrengo egunean gelakide berria.</li> </ul> </li> </ul>	 N fitxa.pdf
<p><b>7. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi bikotek, aukeratutako gelakide berriaren <b>aurkezpena</b> egingo dute.</li> <li>▪ <b>Diskurtsoa osatzen + zuzenketak (M fitxa)</b>.</li> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak I (N fitxa)</b>.</li> <li>▪ <b>Hitzen labirintoa (H FITXA)</b>.</li> <li>▪ Hurrengo egunetarako zereginaren <b>kontsigna</b> eman:             <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duten hurrengo egunean gelakide berria.</li> </ul> </li> </ul>	



<p><b>8. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi bikotek, aukeratutako gelakide berriaren <b>aurkezpena</b> egingo dute.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak II (Ñ fitxa).</b></li> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak III (O fitxa).</b></li> <li>▪ Hurrengo egunetarako zereginaren <b>kontsigna</b> eman: <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duten hurrengo egunean gelakide berria.</li> </ul> </li> </ul>	 Ñ fitxa.pdf
<p><b>9. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi bikotek, aukeratutako gelakide berriaren <b>aurkezpena</b> egingo dute.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak II (Ñ fitxa).</b></li> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak III (O fitxa).</b></li> <li>▪ Hurrengo egunetarako zereginaren <b>kontsigna</b> eman: <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duten hurrengo egunean gelakide berria.</li> </ul> </li> </ul>	 O fitxa.pdf
<p><b>10. EGUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi bikotek, aukeratutako gelakide berriaren <b>aurkezpena</b> egingo dute.</li> </ul> <hr/> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak II (Ñ fitxa).</b></li> <li>▪ <b>Esku hartzen: Estrategiak III (O fitxa).</b></li> <li>▪ Hurrengo egunetarako zereginaren <b>kontsigna</b> eman: <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gogorazi zein taldek aurkeztu beharko duten hurrengo egunean gelakide berria.</li> </ul> </li> </ul>	
<p><b>11. EGUNA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bi dinamika aukeran (<b>P fitxa</b>): ni nolakoa naiz? / maite zaitut.</li> <li>▪ <b>Hitzen labirintoa (H FITXA).</b></li> </ul>	 P fitxa.pdf
<p><b>3. GURE GELAKO ATEAK IREKITZEN: Gela kuttuna gainerakoei erakusten</b> Iraupena: 7 saio</p>	
<p><b>EKINTZAK</b></p>	<p><b>ESKU-HARTZEAK</b></p>
<p><b>1. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Asanblada (1.zatia):</b> baloreen inguruko hausnarketa bat bultzatuko da. Ikasleek aurkeztu dituzten pertsonaien profilak aztertu, eta benetan gure ikasgela kuttun horretan pertsonaia hauek nahi ditugun baloratu, edo osatu nahi dugun (<b>Q FITXA</b>).</li> <li>✓ Egun bakarrean egin daiteke, dena segidan. Edo, bi egunetan.</li> </ul>	

<p><b>2. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Asanblada (2.zatia):</b> baloreen inguruko hausnarketa bat bultzatuko da. Ikasleek aurkeztu dituzten pertsonaien profilak aztertu, eta benetan gure ikasgela kuttun horretan pertsonaia hauek nahi ditugun baloratu, edo osatu nahi dugun (<b>Q FITXA</b>).</li> </ul>	 Q fitxa.pdf
<p><b>3. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Azken ekoizpena antolatzen:</b> ikasleei amaierako ekoizpena noiz eta nola egingo dugun azalduko zaie. Garrantzitsua izango da testuinguratzea, eta ikasleei ere motibazioa transmititzea: <i>beno beno... begira nola sortu dugun gure gela kuttuna...ondoko gelakoei esan al diezue zerbait? Orain aukera izango dugu besteei aurkezteko baina.. asmakizun bezala!!</i> (<b>R FITXA</b>).</li> </ul>	 R fitxa.pdf   S fitxa.pdf
<p><b>4. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Entseguak egiten:</b> gaurko saioan azalpenaren simulazio bat egingo dugu. Gogoratu, saihestuko dugu ikasleek buruz ikas dezaten esan beharrekoa.</li> </ul>	
<p><b>5. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Gela bateko 6 ikasleren ekoizpenak grabatu: kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</b></li> </ul>	
<p><b>6. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Bigarren gelako 6 ikasleren ekoizpenak grabatu: kamera, giro-mikrofonoa eta, ahots grabagailua erabiliko dira.</b></li> </ul>	
<p><b>7. EGUNA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Balorazioa elkarrekin:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Beti bezala musika jarri, eta gaurkoan, azken asteetan bizitutakoa partekatuko dugu elkarrekin: <i>Zer moduz pasa duzue? Gustura gaude sortu dugun ikasgela kuttun honekin? Ondo irudikatu al dute ondoko gelakoek gure gela berria? Zer da gehien gustatzen zaiguna? Zer ikasi dugu? Zer hartu behar dugu kontuan beste baterako? Horrelako zerbait berriz egingo al zenukete?</i></li> <li>✓ Hasiera-hasieran edo A fitxan, irudikatutako gela/ ateratako argazkiak eta orain duguna erka daitezke, ikusteko aldaketarik egon den, hori nahi ote genuen...</li> </ul> </li> </ul>	